

PROGRAMAZIOAREN LABURPENA

HELBURUAK

1. Musika lanaren pertzepzioa lantzea modu aktibo batean erreperitorio ezberdina erabiliz.
Honen bitartez kontzentrazioa eta isiltasuna lantzea.
2. Taldean nahiz bakarka abestea eta musika tresna jotzea (xirula) eta beharrezkoa bada, pianoa, gitarra, perkusioa e.a.
3. Musika praktikorako behar diren kontzeptuak behar den bezala ulertzea eta erabiltzea.
Partitura erabiliz eta partiturarik gabe.
4. Musikarekiko ikuspegi irekiago bat lortzea zentzu kritikoaren bitartez.
5. Obran agertzen diren elementu guztiak antzematea: forma, doinua, erritmoa, harmonia, ehundura, tinbrea, dinamika.
6. Ikastetxeak proposatzen dituen proiektu eta kontzertuetan parte hartzea.
7. Ikasgela txukun mantentzea.
8. Taldean lan egitea modu aktibo batean.

EDUKIAK

1. Musika elementuak: Erritmoa, doinua, ehundura, harmonia, tinbrea, dinamika.
2. Erritmo ezberdinak irakurketa eta adierazmena musika tresna, objektuak eta gorputzaren bidez.
3. Entonazio ariketak. Partitura errazen interpretazioa.
4. Musika instrumentala: Xirula eta beharrezkoa bada, pianoa, gitarra, perkusioa ea.
5. Gorputz adierazmena: Koreografiak eta dantzak.

KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK ETA TRESNAK. BERRESKURAPEN JARDUERAK
--

1. Ebaluaketa bakoitzean gutxienez azterketa teoriko bat eta praktikoa bat izango da.
Ezarritako proba bakoitzaren balioa ehunekoetan honakoa izango da:

Azterketa teorikoa: %30.

Azterketa praktikoa: %40.

Gelako lanak eta jarrera: %30.

2. Musika gelan egiten den behaketan, puntu hauek kontuan hartuko dira.
 1. Idatzizko ariketak.
 2. Partitura irakurketa: erritmoa eta entonazioa.
 3. Musika tresnaren interpretazioa.
 4. Taldekako jarduerak: dantzak, konboak...
3. Behaketan, emaitzaz gain, prozesua eta prozesuan izandako jarrera eta lana kontuan hartuko da.
4. Irakasgaiaren azken emaitza ebaluazioen arteko batazbestekoa eginda aterako da.
Kontuan hartuko da ikasturtean zehar jarraitutako joera.

5. Berreskurapenak: Hurrengo ebaluazioan gaintitu ez diren frogak berreskura daitezke.